



**18/2019 TXOSTENA, IRAILAREN 27KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRARENA.**

**AZTERGAIA: EA GAUR EGUN NOLA DAGOEN BIDAIARIAK BILBO-
GASTEIZ BITARTEAN ERREPIDEZ GARRAIATZEKO
ZERBITZU ERREGULARREN EMAKIDA BATERATUA.**

I.- AURREKARIAK.

2019ko irailaren 4an, Altube-Altube Unibersitate Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko presidentek Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari txostena eskatu zion, Bilbo-Gasteiz bitartean bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu erregularren A3700 emakida bateratuaren egungo egoerari buruz.

II.- ESKUMENA.

I.- Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubideari buruzkoa) 27.c) artikuluan xedatzen duenez, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak aholkularitza-eginkizun hau bete behar du, besteak beste: <<Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren alorrean irizpena eskatzen dioten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera hori kontratazioa kudeatzeko mandatua duten Eusko Jaurlaritzako zuzendariak edo sektore publikoko gainerako erakundeetako legezko ordezkariak egin behar dute, idatziz. Aholku Batzordearen eskumenekoa da, halaber, interes ekonomikoak eta profesionalak dituzten elkarteak eta erakundeek kontratazioaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera organo ordezkariak egin behar du>>.

II.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak txostenak egin ditzake soilik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko

9/2017 Legearen 328. artikuluan eta uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Horrenbestez, Aholku Batzordearen txostenak kontratazio publikoaren inguruko gai orokorrei buruzkoak baino ezin izango dira izan, eta ez du eskumenik txostenak egiteko, ez eta lege-aginduek, hau bezalako kasu zehatzetan, Batzorde honetaz bestelako organo batzuei esleitzen dizkieten eginkizunak ordeztuko ere (9/2017 Legeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten du; eta 116/2016 Dekretua, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren kontratazio-araubideari buruzko da). Gogoeta hori bera jaso du Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak hainbat txostenetan; besteak beste, 29/17, 72/18 eta 97/18 txostenak aipatu behar dira, adibidez.

AKORDIOA

Ez egitea txostenik Bilbo-Gasteiz bitartean bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu erregularren A3700 emakida bateratuaren egungo egoerari buruz.